


Euskal Herriko Ahotsak  
ahotsak.com


*Julio Onaindia Landeta*

*Gernika-Lumo,  
Bizkaia  
(1924-2018)*

Aurkibidea



## Biografia



Asilo Calzada kaleko (gaur egungo [Juan Kaltzada](#)) [Saraspe](#) izeneko etxean jaio zen. Gerora ere, leku berean egindako etxe berrietako batean bizi zen. Beraien jaiotetxean okindegia, biltegia, irin-fabrika (herrian egon den bakarra) eta zerrategia zuten. Bere aita lurretako Arandia errotan jaioa zen, gerora Arratzuko Nabeatarren errotara etorritakoa; ama, oster, nabarniztarra zuen. 11 neba-arrebatatik zortzigarrena izan zen. Horietako hainbat anai kirolariak izan ziren: [Seberino](#) borroka-libreko borrokalaria, Dioni bere sasoiko pilotari onenetakoa, eta Julio bera ere, garaiko pilotari onenekin lehiatu zen lesioengatik pilota utzi zuen arte. Aita Gernika-Lumoko EAE-ANVko lehen presidentea izan zen; ondorioz, kartzelan izan zuten urtebetez. Bonbardaketan Nabarnizera joan ziren eta bidean bere anaia nagusia preso hartu zuten. Erasoan ostean, herriko hainbat familia hartu zituzten beraien, etxea zutik mantendu baitzitzairen. Etxe horretan bertan piano-eskolak ere ematen zituen bere arrebak, Javier Agirre Onaindia futbol-entrenatzaile mexikar-euskaldunaren amak. Zazpi urtetatik 11 urtera arte baino ez zen ibili Pasealekuko eskoletan; Segundo Olaetaz ere solfeoa ikasi zuen gerra aurretik. Negozioak zirela-eta, herriko lehenengoetarikoa autoak eta telefonoa beraien etxean izan zuten. 1951. urtean, Geltoki plazan autoentzako ordezkotza piezak eta bestelakoak zituen denda hartu zuen. Gernika-Lumoko hainbat ezizenen bilduma du eginda, eta horietako asko aipatu eta azaldu dizkigu.

# Zintak

## GER-082

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-30
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

## GER-083

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-30
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-084

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-11-30
- **Iraupena:** 33 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-085

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-13
- **Iraupena:** 73 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-086

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-13
- **Iraupena:** 64 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-087

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-13
- **Iraupena:** 52 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-088

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-16
- **Iraupena:** 74 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-089

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-16
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-090

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-16
- **Iraupena:** 54 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

## GER-091

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-16
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea

## GER-092

- **Proiektua:** Gernika-Lumoko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2011-12-16
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

# Pasarteak

## 1. Asilo Kalzadako Saraspe etxekoa

- **Erref:** GER-082/003
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:05:27. **Bukatu:** 00:07:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak

### Laburpena:

Saraspe etxean jaio zen. Kaleak "Asilo Calzada" zuen izena orduan, baina Francok "Señorio de Vizcaya" izena jarri zion; azkenean, "Juan Kaltzada" izena jarri zioten. Juan Kaltzada zein zen kontatzen du.

## 2. Argentinako Landeta herria aititak sortua

- **Erref:** GER-082/004
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:07:20. **Bukatu:** 00:09:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Diaspora » Disporara bidaia » Diasporara bidaia
- Diaspora » Euskaldunak diasporan » Euskaldunak diasporan

**Laburpena:**

Aitita ez zuen ezagutu, 1893an hil zen eta. Kontatu izan diotenez, Bilbotik Txilera joan zen aitita anai eta arreba banarekin. 105 eguneko bidaia egin ei zuten belaontzi batean. Argentinan lurak eman zizkioten, produkzioen bat jartzeko baldintzarekin. Ganadutegia ipini zuen. Eraikinak egin eta beharginak hartzen hasi zen. Santa Fetik Rosariora bidean, geltokiari Landeta izena jarri zion. Handik sortu zen Landeta izeneko herria, 3.000 biztanle inguru dituen.

**3. 90 lehengusu alde batetik**

- **Erref:** GER-082/007
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:13:39. **Bukatu:** 00:16:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Bere aitaren aldeko aitite Mauma (Ibarruri-Muxika) auzoko Oxinbaltza baserrikoa zen; amama, Zaldibiatik ardiekin etortzen zen artzain baten alaba zen, ordiziarra jaiotzez. Handik lurretara joan ziren okindegia, errota eta argi-zentrala eraikiz. 10 seme-alaba, 10 suhi-errain eta 90 biloba izan zituzten. Julio eta bere arreba dira lehengusu gazteenak.

**4. Hiru umealdiko bularra hartu zuen**

- **Erref:** GER-082/009
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:17:03. **Bukatu:** 00:18:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Beraien etxean hiru ume hil ziren eta horien bularreko esnea Juliok edaten zuen, amak bularra soberan baitzuen.

**5. Saraspe etxearen erosketa**

- **Erref:** GER-082/012
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:20:43. **Bukatu:** 00:23:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

**Laburpena:**

Beraien etxeak Saraspe zuen izena. Aurreko ugazaba Galdos abizendun bat ei zen, "olleria" (lapikogintzako tailerra) zuten bertan. Enkante bidez erosi zuen beraien aita 7.500 pezeta ordainduz, garai hartan dirutza itzela.

## 6. 6 anaia indartsu

- **Erref:** GER-082/016
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:33:19. **Bukatu:** 00:35:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola

### Laburpena:

<p>Beraien etxeko anaia guztiak kirolariak izan dira. Indartsuak izatez gain arinak ziren. Etxeko zerrategian gazterik hasten ziren enbor pisutsuak hartzen.</p>

## 7. Durangoko frontoia berak inauguratu zuen

- **Erref:** GER-082/018
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:37:29. **Bukatu:** 00:39:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

Soldadutzatik bueltatu eta pilotan hasi zen. Profesional moduan hasi zen eta Durangoko frontoia berak eta Gallastegik beste hirurekin batera estreinatu zuten. Partida haren ostean eskuak txikituta izan zituen eta etxeko errotera joan zen lanera. Lau enpresa zeuden "Empresas unidas"en batuta.

## 8. Tatarrez eta minduta derrigortuta pilotan jokatu behar

- **Erref:** GER-082/019
- **Iraupena:** 0:04:32. **Hasi:** 00:39:41. **Bukatu:** 00:44:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

### Laburpena:

<p>Lau enpresa zeuden "Empresas unidas"en batuta. Bertako arduraduna zen Bidartek Durangon jokaturako partidu baten ostean Gernikan jokatzeari exijitu zion, nahiz eta eskuak minduta izan. Oso egoera txarrean jokatu zuen Gernikako frontoi zaharrean, irabazi arren tatarrez bukatu zuen. Bigarren partidu bat ere jokarazi zioten. Etxera bueltatu, ohean sartu eta hiru hilabetez egon zen bertan hernia diskalak jota. Ez zuen gehiago jokatu eta 18 aspirina hartzen zituen eguneko.</p>

## 9. 300 pezeta bi pilota-partidugatik

- **Erref:** GER-082/020
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 00:44:13. **Bukatu:** 00:44:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Aurreko pasartean kontatu duen moduan, Gernikan jokaturako bi pilota-partiduren ostean oso txarto bukatu zuen, lesio larri batekin. 300 pezeta jaso zituen egun hartako lanagatik.

**10. "Partidos marrones"etako apustuak**

- **Erref:** GER-082/021
- **Iraupena:** 0:02:43. **Hasi:** 00:44:54. **Bukatu:** 00:47:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

**Laburpena:**

<p>Berak 14-15 urte zituela, Bermeon jokatzen zuen "Partidos marrones"etan. "Partidos marrones" federaziotik kanpoko lehiei deitzen zitzairen. Bertako partidu batean, pilotari bat aritzen zen apustua egiten, eta hango anekdota kontatzen du.</p>

**11. Migel Gallastegi pilotari handia**

- **Erref:** GER-082/022
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:47:37. **Bukatu:** 00:49:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Migel Gallastegi pilotari handiarekin jokatu zuen Juliok Durangoko frontoia inauguratu zuenean. Beste askoren artean pilotari onena zela dio Juliok. Julioren anaiak, Dionik, askotan jokatu zuen bera kontra.

**12. Ezerezetik profesionaletara**

- **Erref:** GER-082/023
- **Iraupena:** 0:04:54. **Hasi:** 00:49:53. **Bukatu:** 00:54:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Aisia » Kirola » Pilota

**Laburpena:**

Nafarroan ez zegoen pilotaririk. Bizkaiko eta Gipuzkoako pilotari argi eta abilenak gernikarrak eta azkoitiarrak ziren. San Juan batzuetan, Bidartek ("Empresas unidas"eko arduradunak) pilotari bat falta zuela-eta, barraketatik hartu eta zuzenean frontoira eroan zuten Dioni, Julioren anaia. Berak jokatu zuen 18ra arteko partida hura, 18-0 irabaziz. Handik segidan profesionaletarako jauzia egin zuen.

### 13. Gerra sasoian, pilotan aritzeko salbokonduktoa

- **Erref:** GER-082/025
- **Iraupena:** 0:04:03. **Hasi:** 00:57:30. **Bukatu:** 01:01:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

#### Laburpena:

14 urte zituela, Gerra Zibilaren sasoian, pilotan herririk herri aritzeko salbokonduktoa zuen. Agiri hori erakusten du. Behin Donostiara joan zen partidu bat jokatzera, Groseko "La Bonbonera"ra; partidu hartatik joan ziren hoteleko esku-orria ere erakusten du.

### 14. Donostiako aurrerakuntzekin liluratuta

- **Erref:** GER-082/026
- **Iraupena:** 0:02:27. **Hasi:** 01:01:33. **Bukatu:** 01:04:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Pilota

#### Laburpena:

Donostian jokatu zuen pilota-partidu batean bertako hotel batera eraman zuten, "Principe de Saboia" hotelera. Berak 14 urte zituen eta sekula etxetik irten gabekoa zen; hango igogailuekin eta aurrerakuntzekin liluratuta gelditu zen. Salbokonduktuko agiria ere erakusten du.

### 15. Urruneko durundia entzuten zen Gernikatik

- **Erref:** GER-091/005
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:09:31. **Bukatu:** 00:10:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

#### Laburpena:

Bonbardaketa aurretik, jendeak igartzen zuen zer edo zer. Urruneko durundiak entzuten ziren Gernikatik bertatik, Kalamuako borrokak, kasu baterako.

### 16. Gudarien egoera tamalgarria

- **Erref:** GER-091/006
- **Iraupena:** 0:01:48. **Hasi:** 00:10:47. **Bukatu:** 00:12:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

**Laburpena:**

Gerra hasieran, aitagaz Mendatarara ogia eroaten joan ziren batean, handik gudariak hartu zituzten autoan Gernikara ekartzeko. Guztiz errendituta zeuden, penagarria zen haien egoera. Egoera hark sortutako beldurrak eraginda, aitek ere alde egitea erabaki zuen.

**17. Durangora bidean, abiazioaren erasoa**

- **Erref:** GER-091/007
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:12:35. **Bukatu:** 00:16:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Gernika bonbardatu zuten egunean, kanpotik zebilen ogia banatzen. Ogia banatu ostean, Durangoranzko bidea hartu zuten, lehengusina batzuei etxeko zeregin batzuetan laguntzeko. Harako bidean, taberna batean gelditu ziren aita eta bera. Taberna hartan zeudela, abiazioaren erasoa hasi eta taberna kanpoan zegoen gizon bati tabardatik bala bat sartu zioten. Tabernan zeuden denak lur azpiko pasabide batetik irten eta zubi batean babestu ziren.

**18. Durangon Ibaizabalera salto babesteko**

- **Erref:** GER-091/008
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:16:32. **Bukatu:** 00:18:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Gernikako bonbardaketaren egunean, senitarteko batzuen etxera joan ziren Durango aldera, altzari batzuk garraiatzen laguntzeko. Bertara heldu orduko, beraien kontrako tiro-sorta hasi zuten aireplanoetatik. Ibaizabal errekarara salto egin eta haltza batzuetara oratuta babestu ziren.

**19. Durangotik bueltan, Zugastietan egin zieten eraso**

- **Erref:** GER-091/009
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:18:33. **Bukatu:** 00:20:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

**Laburpena:**

Gernikako bonbardaketaren egun berean, Durangora joan zen aitagaz batera enkargu bat egitera. Handik bueltan, Zugastietara (Muxika) heldu zirenean, aireplano bat tiroka hasi zitzaien abiadura handian, baina ez zien harrapatu. Gernikarako bidea hartu eta etxera heldu orduko, kanpakiak entzun zituzten, egun beltz hari jarraipena emango zioten kanpai-hotsak, hain zuzen ere.

## 20. Kanpai-hotsekin batera, babeslekura

- **Erref:** GER-091/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:27. **Bukatu:** 00:22:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

### Laburpena:

Gernikako bonbardaketa egunean, aitagaz batera Durangora joan zen. Handik bueltan, etxera heldu eta kanpai-hotsak entzun zituzten. Sekula babesleku batean sartu gabea zen Julio. 7 urteko arreba hartu eta etxe ondoko babeslekura joan ziren. Harea-zaku eta apeekin egindakoa zen. Babeslekua non zegoen azaltzen du. Alboko bi eraikinak erre ziren, baina beraiei ez zitzaien ezer ere gertatu. Beraien etxea ere zutik mantendu zen. Anaia nagusiari etxean bertan babeslekua egitea bururatu zitzaion lehenago, eta gainerako senideak eta besteren batzuk ere han babestu ziren. Etxe ondoko eraikinean, gaur egungo Kaltzada egoitzan, 28 hil zituzten.

## 21. Bonbardaketako uneko sentipenak

- **Erref:** GER-091/011
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:22:27. **Bukatu:** 00:25:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

### Laburpena:

<p>Julio eta bere arreba etxe ondoko babesleku batean babestu ziren bonbardaketan. Estu-estua zen, gaur egungo Aterpe tabernako ate ondotik Juan Kaltzada kalera doan tarte. Han Nabeatarren baserria zegoen eta bertakoak oso arduratuta ikusi zituen. Jendearen ezinegona eta besteen baretzeko ahaleginek bat egin zuten momentu latz haietan. Goizean goizetik Durangon jasan zuen lehen eraso Juliok, Gernikakoagaz lau pairatu zituen. Bonbardaketa egunean porru-patatak afaldu zituzten beraien etxean batutakoek. Beraien etxean jende askok hartu zuen aterpe gerora ere, gehienek etxea galdu zuten-eta.</p>

## 22. Bonbardaketa Saraspen inguruan

- **Erref:** GER-091/012
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 00:25:00. **Bukatu:** 00:26:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikatuak eta sasimedikuak

### Laburpena:

Lennon dagoen eraikina, "Enplasteruen etxie" , erre egin zuten bonbardaketan. "Enplasterue" k bihotz-koilaratik (besikula) operatzen direnei laguntzen zien. Haren ondoan, "errementeruen etxie" egon zen. Gorago

Sangroniz bizi zen, bonbardaketa egunean gaixorik zegoena; Julioaren bi anaiak atera zuten bertatik eta euren errotapean babestu.

### 23. Erreka zeharkatu ezinik

- **Erref:** GER-091/013
- **Iraupena:** 0:00:51. **Hasi:** 00:26:49. **Bukatu:** 00:27:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » lhes egin beharra

#### Laburpena:

Bonbardaketa gauean, Nabarnizera joan ziren. Baina erreka gurutzatzeko bideak zarratuta zeudenez, bide luzea egin behar izan zuten: Muxika, Zugastieta, Urrutxu, Mendata, Ajangiz, Erreterria, Nabarniz.

### 24. "Hori zerrie errekeiseok? Etxie be ein biok, gizona"

- **Erref:** GER-091/014
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:27:40. **Bukatu:** 00:28:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ondasunen galera

#### Laburpena:

Bonbardaketa ostean, Nabarnizera joan ziren Julioaren etxeokak. Baina, handik hilabete pare batera, ama eta arreba Gernikara bueltatu ziren. Ondasun gehienak errekeisatu egin zizkieten. Bere amak etxeko leihotik bertatik entzun zien errekeisatzen zebiltzanei, negozioaz gain etxea ere errekeisatu egin behar zitzaizela esanez.

### 25. Anaia atxilotu zuten

- **Erref:** GER-091/015
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:28:35. **Bukatu:** 00:30:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

#### Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

#### Laburpena:

Bonbardaketa ostean, Nabarnizen egon zen amamagaz batera. Nabarnizen soldadu asko izan zituzten etxean bertan. Burgo menditik erasotzen zeudela, soldadu guztiek utzi zuten etxea. Bitarte horretan, bere anaia haranzko bidean autoan zihoala, atxilotu egin zuten. Apirilaren 28an atxilotu zuten eta 29an sartu ziren Gernikara. Anaia atxilotu eta autoa eta txakurra ostu zizkieten. Gasteizera eroan zuten preso.

### 26. Preso zegoela, lehengusu erreketegaz topatu

- **Erref:** GER-091/016
- **Iraupena:** 0:01:29. **Hasi:** 00:30:47. **Bukatu:** 00:32:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa

**Laburpena:**

Bere anaia zaharrena, Juan, atxilotu eta Gasteizera eroan zuten. Han, preso zegoela, beraien lehengusu bategaz egin zuen topo; lehengusu areatar hori erreketen kapitaina zen. Hark handik aterako zuela esan zion.

**27. "Flechas y Pelayos"en desfilatzera derrigortuta**

- **Erref:** GER-091/018
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:35:00. **Bukatu:** 00:37:07
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

Bonbardaketa ostean, eskolako lagun gehienak desagertu egin ziren herritik alde egin baitzuten. "Flechas y Pelayos"en desfilean parte hartzera derrigortuta egon ziren, baina Julio ez zuten harrapatu, bizkorragoa izan ei zen.

**28. "Flechas y Pelayos"en ez parte hartzeko ihesi**

- **Erref:** GER-091/019
- **Iraupena:** 0:03:56. **Hasi:** 00:37:07. **Bukatu:** 00:41:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

**Gaia(k):**

- Politika » Jarrera politikoak » Falangistak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura

**Laburpena:**

"Flechas y Pelayos"en desfilean parte hartzera derrigortzen zituzten. Hori dela-eta, domekero Autzaganera, Bizkaigainera, Billakaria, Esperantzara, Jainkora... joaten ziren ihesi ez harrapatzeko.

**Ahotsak.eus**-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.  
*2026-03-08*

**CC-by-sa | Ahotsak.eus**  
Badihardugu Euskara Elkartea  
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar  
943121775 - ahotsak@ahotsak.com